



HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN (4.ALDIA)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2018-2019

ARLOA: Gizarte eta Zuzenbide-Zientziak

KREDITUAK: 10 ECTS

MATRIKULA TASA: 500 euro

ZUZENDARITZA AKADEMIKOA: **M^a Aranzazu Campos** Rubio



AURKEZPENA

Hezkidetzan Esku Hartzen (UPV-EHU) ikastaro osagarriak edozein hezitzaile zein hezkuntza-eragilerentzako hezkidetzaren oinarriak ezagutzeko eta berehala inguru hurbilean praktika hezkidetzailleak martxan jartzeko prestakuntza bermatzen du. 10 CTS / 250 ordukoa da, online, euskaraz eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren homologazioa du.

Hezkidetzan Esku Hartzen ikastaroaren xede nagusiak:

- Eguneroko bizitzako eta hezkuntza-eremu ezberdinetan sexismoa eta eraso matxistak errekonozitzen, esplizitu egiten eta ondorioak identifikatzen jakin.
- Norberak hezkidetza bere interesetatik abiatuta eta bere inguru hurbiletik sustatzeko ezagutza eta baliabide teoriko-praktikoz jantzi.
- Eskolan, etxean, kalean, era guztietako harremanetan martxan jartzeko material hezkidetzailleak identifikatu edo sortzeko gai izan.
- Elkarbizitzan tratatu onetan oinarrituz, identitate anitzen garapenerako bideak sustatu.
- Aniztasun anitzen alde eta hezkuntza berdinzalearen aldeko pertsonak zein taldeak haiek ekarpenak optimizatzeko asmoz sare birtualetan bildu.
-

Edukiak:

- 0 BLOKEA-NIRE ERREALITATETIK ABIAN
- 1 BLOKEA-HEZKIDETZA: OINARRIZKO GAKO TEORIKO-PRAKTIKOAK
- 2 BLOKEA-EMAKUMEEN PRESENTZIA
- 3 BLOKEA-IDENTITATEAK ETA HARREMANAK
- 4 BLOKEA-BUKAERAKO LAN PRAKTIKOA



Eskaintzen dituen jarduerak praktikoak eta landutako edukietan oinarritutakoak dira, partaideek ezagutza jakin batzuk izateaz gain, irakaskuntza- zein hezkuntza-kompetentzia profesionalak gara ditzaten. Eskaintzen diren jarduerak irakaslearen eguneroko lanarekin, eta batez ere gelan ikasleekin egiten denarekin, lotura zuzena izateko diseinatuta daude.

On-line edota urrutikoa izatetik harago doan sare-lana bultzatzen du. Hezkuntza-eragile ezberdinen arteko harremana bultzatzeko diseinatua dago. Beraz, ikaste-prozesua izango da edukietatik zein partaideen arteko elkarreragina eta beren ideien eta esperientzien trukaketatik abiatuta.

BALDINTZAK

- Edozein titulazio akademiko duen Gradutik (lehen lizentziatura eta diplomatura)
- Erdi eta Goi mailako Heziketa Zikloko titulazioa.

Ikastaro hau hezkuntzan jakin-mina duten guztiei zuzendua dago, eta bereziki haurraren eta neraben heziketan lan egiten edo egingo duten guztientzat. Egitasmo honetan parte har dezakete:

- Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak
- Irakasle eskoletako ikasleak
- Aisialdiko hezitzaileak, e.a.
- Orokorrean, haur eta nerabeen heziketan interesatuak!

Hezkuntzaren mundua oso mundu konplexua da eta gure trebakuntza aurrera eramateko ikastetxetan aritzen diren profesional (aditu) guztiak kontutan hartu behar ditugu. Profesional horiek egiten dituzten jarduera guztiak: Kirola, kultura, **aisiaren kultura, komunitatearen kultura ...**

Gure gaian, hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren aurkako prebentzioa klasetik kanpo egiten diren jarduera horiek bai klasean egiten direnak hain garrantzitsuak dira horrexegatik profesional guztiak formatzea beharrezkoa da eta horrexegatik gure trebakuntza haiei ere zuzenduta dago. Arlo guztiak garrantzitsuak direlako emakumeen hilketaren kontra lan egiteko.



IRAKASKETA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2018/09/28-tik 2019/05/06-ra

EMATEKO TOKIA: On line

HIZKUNTZA: Euskara

INFORMAZIO BULEGOA

IKASTEGIA: Zuzenbide Fakultatea (Gipuzkoako Kampusa)

HELBIDEA: Manuel Lardizabal, 2. 20018 Donostia-**San Sebastián**

TELEFONOA: 943 01 51 43

HELBIDE ELEKTRONIKOA: hezkidetzaneskuhartzen@ehu.eus

WEBGUNEA: Zehazteke dago. Eskaera berria luzatu baitugu.

(*) ECTS KREDITU BAT 25 ORDUTAKOA DA